Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

AI24

**ARABAN BERRIKUNTZA ETA DIGITALIZAZIOA SUSTATZEKO LAGUNTZEN EKITALDIRAKO DEIALDIA.**

# ARABA INNOVA - DIGITALIZA 2024

| Eskaerak aurkezteko epea (9. art.) | Jarduerak egiteko epea (6.2. art.) |
|---|---|
| Eskaerak aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 1ean hasiko da eta 2024ko martxoaren 15eko 14:00ak arte bukatuko da. | Dirulaguntza jaso dezakete 2024ko urtarrilaren 1etik 2025eko irailaren 13ra artean egiten diren jarduerek eragindako gastuek. |

**Helburua (1. art.)**

Deialdi honen helburua Araban berrikuntza eta Digitalizazioa sustatzea da, norgehiagoka erregimeneko diru-laguntzak emanez Arabako ekoizpen egituraren ekonomia modernizatzen eta haren lehiakortasuna hobetzen laguntzen duten proiektuak eta/edo jarduerak egiten dituzten erakundeei.

**Erakunde onuradunak (3. art.)**

- Sozietate egoitza eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten enpresek, beren osaera juridikoa edozein dela ere, edo gutxienez jarduera zentro bat Arabako Lurralde Historikoan daukatenek eta eskaera egiteko unean zentro horri atxikitako langileak dituztenek. Enpresa sortu edo jarduera hasi zenetik eskaera egiten den egunera arte gutxienez urtebete igaro behar da.
- Zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten autonomoak, baldin eta laguntza xede den jarduerari dagokion JEZean alta eman zutenetik gutxienez urtebete igaro bada.
- Arabako Lurralde Historikoan jarduera zentroa duten zentro teknologikoak edota ikerketa zentroak, Araban irakaskuntza unitatea duten unibertsitateak eta Araban helbide soziala eta fiskala dauzkaten fundazioak eta enpresa elkarteak eta I+Gko enpresa unitateak, haiek denak gutxienez bi urteko antzinatasuna izanik

**Diruz lagundu daitekeen egintza (4. art.)**

Jarduera berritzaile hauen barruan kokatutako jarduketak diruz lagundu ahalko dira: Teknologia digitalen erabilera intentsiboa, produktu edo zerbitzuko berrikuntza eta produkzio prozesuetan berrikuntzak.

**Diruz lagungarriak diren gastuak (4. art.)**

**Gastu diruz lagungarri:**

- Erakunde eskatzaileak aipatutako berrikuntza jardueraren bat kontratatzean sortutako kanpo gastuak diruz lagundu ahalko dira.
- Diru-laguntza jaso dezakete deialdi honetara aurkeztutako berrikuntza jardueraren baten diseinu, garapen, gauzapen, jarraipen eta/edo ebaluazioari lotutako langileek.
- 100 edo pertsona gutxiago lan egiten duten empresetan, Ibilgetuan egindako inbertsioak dirulaguntza edukiko dute, Kontabilitate Plan Orokorran 213 Makinaria mailan egonezgero.

**Dirulaguntzen zenbatekoak (7. art.)**

Dirulaguntzen portzentai maximoak :

| Onuradunak | 50-79 puntu bitartean | | | | 80 puntu edo gehiago | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ETEak | | ETEak ez diren enpresak | Elkarteak eta autonomoak | ETEak | | ETEak ez diren enpresak | Elkarteak eta autonomoak |
| | ≤100 pertsona | >100 pertsona | | | ≤100 pertsona | >100 pertsona | | |
| Kanpoko gastuak | 30 | | 20 | 30 | 40 | | 20 | 40 |
| Barne gastuak | 20 | | | | | | | |
| Inbertsioak | 10 | | | 10 | 10 | | | 10 |

Dirulaguntzen limite maximoak:

| | 50 puntuetatik 79 puntuetara | 80 puntu baino gehiago |
|---|---|---|
| Kanpoko gastua | 35.000,00 € | 45.000,00 € |
| Barneko gastua | 15.000,00 € | |
| Kanpoko eta barruko gastua duten eskaera | 40.000,00 € | 50.000,00 € |
| Ibilgetu inbertsioei begira | 15.000,00 € | |
| Guztira, erakundeko | 50.000,00 € | 60.000,00 € |

**Dirulaguntza ordaintzea (13. art.)**

- Dirulaguntzaren lehenengo zatia, hau da, onartutako dirulaguntzaren ehuneko 50, ebazpena onartutakoan eta erakunde onuradunak 12. artikuluan aipatzen den onarpena aurkeztutakoan ordainduko da, justifikatu beharreko aurrerakin gisa.
- Dirulaguntzaren gainerako ehuneko 50a ordain dezan, aldez aurretik onuradunak, 2025eko urriaren 24ra arteko epean (egun hori barne), dirulaguntzaren guztirakoaren frogagiriak aurkeztu beharko ditu.

**Araubide juridikoa**

Foru Gobernu Kontseiluaren 810/2023 Erabakia, abenduaren 12koa.
Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da (1. art).

**Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Saila**
Ekonomia garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritza
Probintzia plaza, 5 – 1.a. 01001 Vitoria-Gasteiz

**Informazio gehigarri:**
Tel: +34 945 181818 (luzapena 52040)
www.araba.eus
E-mail: alavainnova@araba.eus